



### Urriak 28:

21:00 Amezketako Gazte Taldea eta Zazpitturri Elkartearen eskutik, bertso afaria Zazpitturri elkartean **Aratz Igarzabal** eta **Eneko Araiztegi**ekin. Tikitak herriko tabernetan salgai Urriak 25 arte.

### Azaroak 4:

18:00 **Sunpriñue Amezketan**. "Aralarko artzainen musika-tresna berreskuratzen" tertulia Pello Zabala Gunean.

### Azaroak 5:

10:00: **Hurritz Makilak** egiten ikasteko ibilaldia Altunegi auzorako bidegurutzean hasita (Dantzarin Saletxe inguruan).

Aurrez izen ematea 695 712 610 telefono zenbakian.

18:00 **INGO** taldearekin erromeria ibiltaria Amezketan zehar Fernando Amezketarra plazatik hasita.

### Azaroak 11: SAN MARTIN EGUNA

11:00 Meza San Martingo ermitan.

14:00 **Jubilatu**en **bazkaria** Txindoki jatetxean bertsolari eta trikitilariekin alaituta.

16:00-16:30 Haurrentzat **merienda** goiko eskoletan Guraso Elkartearen eskutik.

21:00 **Gaztain jatea** Zazpitturri Elkartean.

### Azaroak 16:

17:00 Olio birziklatuaz garbiketarako **xaboa** egiten ikasteko tailer praktikoa Pello Zabala Gunean. Norberak tailerrean eginiko xaboa etxera eramango du. Plaza mugatuak izango dira eta izen ematea 690 34 90 09 telefonoan.

### Azaroak 18:

18:00 Judoko kata modalitatearen erakustaldia **Unai Regillaga** eta **Unai Saralegiren** eskutik Larrunarri frontoian.

### Azaroak 25:

18:00 Pello Zabala Gunean, "**Bertako hazi barietateak eta hauen ugalketa**" hitzaldia. Ondare biokulturala, komunitatea eta agroekologia. Bertako hazi barietateen historia eta gaur egungo garrantziari buruz arituko da hitzaldia. Bestalde, baratzeko hazi ugalketari buruzko oinarritzko kontzeptuak azalduko dira.

20:00 **Talo jatea** 4. DBHkoen eskutik Larrunarri frontoian.

### Azaroak 27:

10:00etan hasita, **Amezketako Ferie** Larrunarri frontoian.

### Abenduak 2:

18:00 "Gure lurrari begira, etorkizuna amets" solasaldia Josebe Blanco artzaina eta EKHOlektiboako kide den Aitziber Sarobe biologoaren eskutik. Saroi Jauregik gidatuko du kultur etxeko areto nagusian. Antolatzailea: **Buruntzunzin Mendi Elkartea**.

### Abenduak 3:

11:00 tan 3<sup>1/2</sup>ko pilota txapelketako **finalak**. Eguraldi ona bada frontoi zaharrean, txarrarekin Altuna Anaiak frontoian. Ondoren poteoa Ergonen trikiti soinuaz alaiturik.

14:00 **Bazkaria** Altuna Anaiak frontoian. Tikitak herriko tabernetan salduko dira. Ondoren Euskal Kantuen Bingoa.

17:00 **Mus Txapelketa** Altuna Anaiak frontoian (16.30tan izen ematea).



### Abenduak 4:

12:00 AMEZKETA (1936-1945) "Zigorpean isilaraziei, merezitako aitortpena" **liburuaren aurkezpena** kultur etxeko areto nagusian. Gerra zibilak eta gerra ondorenak Amezketan izandako ondorioak aztertu eta bildu ditu Antton Amondarainek.

### Abenduak 16:

18:00 **Gerra Zibilaren** eragina Amezketan: Azalpena eta tertulia Antton Amondarainekin kultur etxeko areto nagusian.

### Abenduak 17:

**-Gerra omen zettorrek!  
-Ederrak egin dizkinagu!**

Kultur etxean, gerra zibilak Amezketan izandako ondorioak jasotzen dituen antzezlanaren herritarren eskutik.

(Ikusle kopuru mugatua izango denez, emanaldi bat baino gehiago egingo dira egun berean. Emanaldien ordutegia eta izen ematearen azalpenak aurrerago zehaztuko dira.)